

Goibekokale

ELGETAKO ALDIZKARIA

1995eko azaroa 7zk.

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1^a EZK.



**5. ETA 6. MAILAKOAK
ESKOLARTEKO TXAPELKETAN**

Maderas Gallastegui, s.a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxes: 6583061.

Patxi Alkateari Zorionak!

Goibeko kaleko 6. zenbakian elgetar bi gazte amorratuk idatzitako karta irakurri ondoren harridura eta ulertezina sortu zitzaizkidan berehala.

Aldez aurretik, elgetarra ez naizela esan beharra daukat baina azken bost urtetan Elgetan bizi ondoren ba dut herri polit honi eta bertako alkate zintzoari buruzko iritzirik.

Mielotsin eta Arixek ez didate esango herri txiki honetako gauzen barri jakitea benetan errezza ez danik. Nik neuk behintzat ia egun osoa Eibarren pasatu arren Diario Vascon Elgetari buruzko artikuluan agertutako guztiak ezagunak nituan. Beraz, herriko gauzak argi eta garbi daude. Agerian dago ikustea nahi ez duena baino itsuagorik ez dala.

Patxi Basauri alkateari egin nahi dioten kritikak ez dauka ez buru eta ez hanka. Elgeta herri perfektoa? Patxi horren arduradun bakarra? Elgeta kanpokoeri saldu izana? Aipatutako artikulua irakurrita ezin daiteke horrelako konklusio kaskarrik etara ez baldin bada aurreiritzi eta setakeri itsuaren ondorioz.

Nere partetik behintzat zorioniik beroenak Patxi Basauri alkateari. Seguru nago bera ez dala Elgetako egoera onaren arduradun bakarra baina eragilerik nagusia izan beharko ia 20 urtez alkate izan dan pertsona.

Eta amaitzeko, Miolo-

tsin eta Arixi konsejuto bat, begiratu dezatela inguruan ia aurkitzen duten Elgetaren neurriko herririk bere Udalean Elgetakoan dauden hainbat idea argi, lorpen eta proiektorekin. Herriak arazo demografikoa badu ez da kanpokoeri saldua izan dalako, bertako asko beste herriren bat erosi beharrean izan diralako baizik.

Eduardo Zubiaurre.

OHARRA

Espero dugu ale hau gustatuko zaizuela.

Goibeko kalearen hurrengo zenbakia Urtarrilaren 1a baino lehenago aterako dugu.

**EUSKERAKO IRAKASLEA
FALTA DA**

Euskeraz bizi, hitzegin, ikasi, irakurri, euskeraz egin, alfabetatu eta lan egin. Baina, non dago udaletxean izena eman duten eta euskera ikasi nahi duten sei pertsona hoiengatik irakaslea? Ez al du talde horrek elgetar euskalduna izateko aukerarik izango edo?

Aldizkari honetatik denok bultzatzen ari gara euskerak berea duen tokia hartu dezan gure gizartean eta bizimoduan. Hau dela eta, Elgetako gehiengoaren laguntza dugula sentitu genezake eta hor sartzan dira euskera gutxi ulertu arren irakurtzen saiatzen direnak ere. Jende honi esker gure lana ez da bertan behera geldituko.

Tamalez guk ezingo dugu irakasle bat ordaindu seikote honentzako baina zera esan nahi dizuet, ez uzteko nora ezean zuen asmo hori. Badakizue toki guztietan zerbait lortu nahi izanez gero "herriko etxean" aldaba sarri jo behar dela.

Hemendik saiatzeko esan nahi dizuet; ez uzteko bertan behera asmo hori, eta euskera gogoz ikasi dezazuela, euskaraz bizitzeko.

Goibeko kaletik beraz, danbateko gogor bat ate horretan. Euskeraz denok hobetu nahi dugulako eta euskeraz ikasi nahi dugulako.

Noizko euskerako irakaslea?

Ana Gillegi Etxebarria



AUTOBUSAK

San Juan, 18
48230 Elorrio (Bizkaia)

Telefonoak:

94 - 623 16 47 (Bulegoa)

94 - 658 21 55 (Etxekoa)

Tel. Mugikorra

908 - 67 52 56 (Eibar)



Ametsak-esanahiak

Ez dakit modan dagoen gauza den, baina azken denboraldi honetan jende ugari etorri da liburutegira ametsen esanahiak argitzen dituen libururik ba ote dagoen galdetuz. Hau del a eta, agian beste batzuk ere antzeko kezka izango dituztelakoan, artikulua hau idaztea erabaki dut.

Ez dago esan beharrik denok amets egiten dugula gauero. Gehienetan ez ditugu ametsak gogoratzen. Gogoratzen baditugu, eta are gehiago, amets berbera errepikatzen bada, zerbaitek ez duela ondo funtzionatzen adierazten du eta konpondu egin behar dela esaten digute psikiaterek. Ametsak, segun eta norentzat, interpretazio ezberdinak izan ditzakeela uste dute hauek. Hala ere bada ametsak eta esanahiak sailkatu dituenik. Hona hemen adibide batzuk:

Bidaia. Trena galtzearen estuasunak heriotzari diogun beldurra adierazten du. Bidaia honetan aurkitzen ditugun oztupoak beraz, bizitzan zehar aurkitzen ditugunak dira.

Hortzak. Hortzen inguruko ametsak bizitza sexualarekin harremanetan omen daude. Psikoanalista batzuk, hortzak erortzea kastrazioarekin lotzen dute; beste batzuk aldiz, norbere buruarekiko estima galdu duela suposatzen dute.

Umeak. Honi buruz ez dago adostasunik, batzuentzat ernaltze organoekin loturik daude; beste batzuek berriz bizitza aldatzeko gogoarekin lotzen dute ametsetan umeak agertzea.

Heriotza. Ametsetan lagun bat hiltzeak ez du esan nahi laister hilgo denik. Une zehatz batean pertsona hori gure bizitzatik atera nahi izan dugula baizik.

Animaliak. Orokorrean bizitza bera sinbolizatzen dute. Lotan dagoenaren anai-arrebak edo baita ikaskide edo langileak ere.

Korrika egitea. Helburu edo arazo bat alde batera utzi nahia da.

Zerrenda luzeagoa da, dena den, labur bada ere, galdetu duten pertsona guzti horiei zertxobait laguntzea espero dut.

Mª Elena Eztenaga



Untziratutako Intsumisioan

Askok eta askok esango dute, nor arraio den tipo hau honi buruz idazteko; baina, satsaren berri ez daki inork bertara inguratzaren eulia izan arte. Ez nator nere gora-behera edo arrazoiak azaltzera; zuek oraindik egin gabe duzutenok eta egiteko asmorik ez duzutenoi zuzendurik doa. Neuk eta beste askok ez dugu geure azalean bizi izan baina badut orain barruan dauden berri. Denak dira intsumisio, denak daude zerbitzu militararekin desadostasunean (badira objektoreak ere). Hala ere, bakoitzak bere motiboak ditu intsumisio egiteko.

Hori da esan nahi dizuedana; badakizue zerbitzu militarari uko egin behar diozuenok zergaitik eta zertarako egiten duzuen? Norbere ideiak garbi eta eskematizatuak edukitzea oso garrantzitsua da epaimahai militararen aurrean aurkezteko, eta nola ez sententzia horri adoreaekin eta burua tente aurre egiteko. Batzuk aitzaki edo ihesbide bezala hartzen dute; beste batzuk Estatu espainiarraren aurkako iraultza bezela (ideologia politikoak barne) soldaduzka honen aurka daude, baina ez dute bere burua antimilitaristatza jotzen; beste asko berriz, edozein ejerzito edo banderaren izenean armarik ez hartzearen iritzikoak dira, ejerzitoen abolizioaren egarri.

Denak datoz bat edozein pertsonaren konzientziaren aurkako eraso delako soldaduzka egin araztea, bahiketa bat; baina tamalez "behiketa legala". Zoritxarrez gauzak nahiko ilun daude. Borrokatu beharko da, eta badakigu batasunak egiten duela indarra eta zu oraindik garaiz zabilta; ondo mentalizatu zaitez egin behar haundia dagoelako. Informatu eta ondo ausnartu ez baita txantxetako. Ni neu untziratzen naiz. Animo!

Xabat Leanizbarrutia.

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Koordinatzaileak:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredakzioarekin:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Euskera arduraduna:** Iban Aranzabal. **Argazkien erregelazioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ube. **Kolaboratzaileak:** Mª Elena Eztenaga, Xabat Leanizbarrutia eta Nerea Loidi. **Administrazioa:** Esti Retolaza, Susana eta Olaia Jirinez. **Publizistak:** Onditz Billa eta Eider Etxaniz (Telefona: 76.80.19). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 400 ale. **Inprimategia:** GER-koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

LOPEZ DE URALDE: "3.700 METRO IZANGO DITU GAS SARE BERRIAK"

Ignacio Lopez de Uralde, udaletxean Industriarako gestio lanetan ari da azken bi urteotan. 1996ko otsailan hasiko dira gasaren hodiak sartzeko. Bestalde esan, Pagatzako industrialdearen zabaltea laster gauzatuko dela, bi industria berrirekin.

1993an hasi behar zituzten lanak, badute dagoeneko data berri eta hurbilago bat, 1996ko otsaila hain zuzen ere. Atzerapen honen arrazoiak bitan laburtzen zizkigun Lopez de Uralde jaunak: "Batetik, bi enpresa agertu izana gasaren banaketa egiteko prest (CEPSA eta REPSOL), bestetik enpresetan erabiliko den gasaren transferentzia arazoak. Baina azkenean, 3.700 metrotako hodi sarea egingo da Elgetako kaleen azpitik. Lan hauek direla eta, pazientzia pixka bat eskatzen dugu".

Elgeta Gipuzkoako gas horniketa izango duen laugarren herria da, Urnieta, Asteasu eta Antzuolaren atzetik. Momentuz REPSOL enpresa ariko da propano gasaren banatze lanetan; etorkizunean, gas naturala ipintzeko asmoa badago ere, ez da aurreikusten 2004 urtea baino lehen izango denik.

Gasaren horniketa, Forjas enpresaren ondoan dagoen zelaian egingo duten biltegitik burutuko da eta toki honetan gasolindegia ere izango dugu. Gasifikazio lanak herrian egingo dira, Uriburu, Torre-aldea eta Salbadorreraino zabalduz. Hemendik kanpo daudenak (base-riak...), plan pertsonalizatu bat egin beharko dute enpresarekin.

Hodiak sartzeko kostua, 70



1996ko otsailean hasiko dira gasaren hodiak sartzeko Elgetako kale azpitian.

miloikoa da, eta gutxienez 300 etxebizitzetara heldu nahi da, merkeago izan dadin. 1993ko kostu berak mantentzen saiatzen ari dira, eskeintza erakargarriagoa bihurtuz, eta horrela etxe guztietara heldu asmoz.

Indus- triaren hedapena.

Azken urteotan industriaren igoera nabaria gertatu da Elgetan; 38 enpresa daude momentu honetan eta langabezi tasa baxuenetakoa da.

Lopez de Uralderen usteetan, "Egoera ekonomiko larriangeratu zen Elgeta, DormiCoop eta Erostarbe itxi zirenean. Ondorioz, industriaren aldeko apostua egin beharrean gaude. Baldintza oso onak ditugu, toki egokia,

sarrera-irteerak eta zolu industrial merke izatea besteak-beste. Pagatzan urbanizazioa falta da soilik eta hau enpresa bakoitzak ordaintzen du, erabilpen eta m² karratuen arabera.

Laister bi enpresa berri heltzen dira Pagatzako industrialdera. Lehenengo Bergararik dator (Mugika) eta bestea bizkaitik Asfaltos Uribe. Mugika kautxoaren berreskuratzen arituko da eta Asfaltos Uribe asfaltoa egiteko enpresa da.

Azken honekin kutsadura arazoak ez zirela gertatuko ziurtatu du Ignacio

Lopez de Uraldek berak eta estetika eta araututako legeak aplikatzen jarraituko dituztela pabilioi berrien eraikuntzan orainarte egin duten bezela.

"Bi enpresa berri izango dira Pagatzako industrialdean. Bata, kautxoaren berreskurapenean arituko da, eta bestea, asfalto egiteko fabrika bat izango da".

OSTATU
DAETXER

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta

VIVO
JANARI DENDA

M^a JESUS
ARRAZOLA
Tel: 76 81 31

IBAIBARRIAGA
GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga
Telf: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

GOIBEKOKALE ESKULAN LEHIAKETA ELGETAKO HAUR ETA GAZTEENTZAT

Goibekokalek, 3 urtetik 14 urte bitarteko neska-mutikoentzako lehiaketa bat antolatu du. Eguberriak inguruan direla ohartuta, gaia ere bera jarri dugu, Gabonak hain zuzen. Beraz, elgetarra bazara eta adin horren barruan bazaude, zure lana jasotzea espero dugu. Parte hartzen duten guztien lanak, kultur etxean ipiniko ditugu ikusgai, abenduaren 21etik 25 bitartean. Lanak emateko epea, abenduaren 19an da.

Binaka edo banaka aurkeztu daiteke. Erabili beharreko materiala berriz bakoitzak aukeratu dezake, esaterako: margoak, hariak eta oihal pusakak, udazkeneko hostoak, aldizkarien argazkiak...

Tamaina ere norbere gustora: kartulina, orrian, kartoian...

Epaimahai batek aukeratuko ditu lanik onenak eta sariak banatuko dira. Oparien banaketa Olentzerok berak egingo du abenduan Elgetako plazan.

Sarien banaketa adinaren arabera talde bakoitzeko onenari emango zaio:

- 3-5 urte artean.
- 6-10 urte arteko.
- 10-14 urte artean daudenei.
- Sari berezia: Originala.

lenak.

Lanak, irakasleek jasoko dituzte eta bestela Ana Mari liburu dendan. ANIMO ETA ZORTE ON!



Zure lana kultur etxean egongo da abenduak 21 -25ean

GIPUZKOAKO S.O.S BALKANETAKO LAGUNTZA DEIA

Joan zen apiriletik hasita erakunde hau Kroaziako kostaldean dagoen herrirka batetako 305 haurrentzako laguntza bila dabil. Haur hauek Sarajevokoak dira eta etorkizunean arazorik gabe bergizarteratzen lagundu nahi diete. Hala ere, orain esku artean duten kanpaina bestelakoa da: haurrak besoetako ume egin nahi dituzte. 305 haur edo ume horien artetik, 100 falta zaizkie.

Ateratako kalkuluen arabera, ume bakoitzak hileroko 2.000 pta beharko lituzke (barnean daude oinarritzko gauzak eta hezkuntza).

Eskatzen duten konpromezua, haur bati laguntza hau ematea urte batez. Ume hauen datuak Donostian bertan dituzte eta laguntza ematea erabakiko balu pertsona edo familia batek, haurraren argazkia jasoko du etxean, adina eta beste zenbait datu, helbidearekin batera.

Negu Hotzaren Aurrean Erropak eta Zapatak.

Era berean, Yugoslavia ohian laguntza beharren daude oraindik. Beraz neguari begira erropak biltzeko kanpaina zabaldu

dute. Erropen artean denetatik jasotzea nahi dute, baina batipat azpiko erropak eta ahal izanez gero berriak edo egoera onean daudenak.

Lagundu nahi baduzu utzi zure erropak abenduaren 19a baino lehen eta aldizkarikook jasoko ditugu. Erropak honoko dendatara eramanez 11tik 19ra bitartean:

Erosle, Aldi, Farmazian eta Vivóra. Poltsak ongi itxi eta zapata pareak elkarri lotuta ipini.

Informazioa jasotzeko *Goibekokale* jo dezakezu edo bestela Donostiako **Gipuzkoa-Balkanak Laguntza Elkartera**: Tel: 42.50.90.

**GORROTXATEGI
HARATEGIA**

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.
Tel: 76 81 72.

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Zer egingo zenuke soldaduzkara (berriro) joan bihar zala esan ezkeror?



Rufina Aranzeta
Jubilatua (68 urte)

Bapez juan, ni ez nintzan juango. Intsumisiñua ondo pentsatzen jata, bakoitzak erabaki bihar dau eta ez dotza inork ezer esan bihar.



Fernando Zenitagoia
Langilea (39 urte)

Ba nik ahal izan ezkeror behintzat ebitau, ez nitzake juango berriro. Intsumisioaren gañian, oso ondo pentsatzen jata gaztiak burrukan eittia soldaduzkara ez joateko, hori denbora galtzia dalako.



Maria Pilar Garai
Etxekoandrea (43 urte)

Izango bialitzake nahi dabenak juan, eta ez dabenak nahi ez. Ni ez nitzake juango. Intsumiso izatia ondo pentsatzen jata baina kartzelan bi urte pasatzia gogorra izango da, nik bi urtiak kartzelan pasauko nittuke.



Inaki Maguregi Langilea
(39 urte)

Ni berriro ez nintzan juango, nere denboran eitten giñuan dirua gastau ta lanpostua galdu. Oingo situasiñuan ez dakit ze eingo neban baina ez nintzan junango. Intsumisioa bakoitzan erabakixa da, ni joan nintzanian ez zagon intsumisioik.



Itziar Zabala
Ikaslea (18 urte)

Ni ez nintzan joango pen-tsatzen jatalako urte bete alperrik galtzia dala. Lehenengo ta behin, objetore eingo nintzake ta lekurik ez balego insumisa. Intsumisioa ondopentsatzen jata.



Inaki Garcia
Tabernaria (25 urte)

Lehenengo eta behin alegau egingo neuke, ahal dan guztia eginaz. Eta alegaziñuak atzera bota ezkeror, ez nintzake joango. Intsumisioa ondo pentsatzen jat, urtenbide garbirik ez dago eta. Ni intsumiso egingo nintzake.


Erosle
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190


Galdaragintza arina
Hoditeria
Errementaritza
Soldadura homologatuak
Antonio Rodrigues Da Cruz
BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14


KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

ELGETA:

-Abenduaren 23an Zapatua, Gabonetako Jaialdia: korua, trikitilari eskolakoak, musika eskolakoak... 9.30etan

-Jubilatuei zuzendutako eskulan ikastaroa hasita dago; kultur etxean eguenero 2:30etatik 4:00retara.

-Mekanografia ikastaroa: Herriz-Herrik antolatua (diploma akreditatzailearekin) Gehiago jakin nahi izanez gero deitu 674005 telefonora

-Kirola eta euskera kanpainaren barnean

-Oinarrizko prestakuntza fisikoari buruzko ikastaroa. Izenemateko epea abenduaren 5a.

-Bizkar hezurreko arazoak tratatzeko proposamenen ikastaroa. Izenemateko epea abenduaren 12a.

Informazioa Elgetako udaletxean.

ARRASATE:

-HIES EKIMENAK antolatuta:

-Abenduaren 1ean HIESaren mundu eguna ospatuko da. 11etan, informazio mahaiak.

18:00etan "Tunantes del Norte" kinkalegira

19:00etan Arrasateko Dultzaineroak.

20:00etan giza katea.

-Abenduaren 2an Kontzertua: Javier Alvarez madrildarra eta Ruper Ordorika.



AMAGOIA IRAZABAL LANGILEA

- Zertan eitten dozu biharra? Pinnak eta pintatzen.

- Gustora zaoz biharrarekin? Bai.

- Zer ordutan sartzen zara biharrian? 8-etan.

- Zer da zure biharretik gehixen gustatzen

jatzuna? Bertan egoten dan ambientia.

- Ze kolorekoak dira zure begiak? Berdiak.

- Zer falta da Elgetan? Martxa gehixau gabetan. Zer sobratzen da? Arduradun larregi dagola.

- Sinisduna zara? Bai. Zer esaten du zortzigarren aginduak? Ez duzu gezurrik esango.

- Zein zan zure txikittako ametsa? Atleta haundi bat izatea.

- Idolorik badaukazu? Ez.

- Makailua ala trikitixa? Trikitixa jakiña.

- Kostia ala mendixa? Bixak.

- Festarik gogokoenak zeintzuk dittuzu? Elgetako jaixak.

- Non bota duzu azken juergia? Arrasaten.

- Drogak legezkatuko ziñukez? Bai.

- Biziorik badaukazu? Mordua.

- Euskal Herriko herririk politena? Elgeta.

- Bilboko metroari bizitaxorenbat egingo dotzazu? Bibora juaten ba nai bai, baina ez nai juango Bilboraino hori ikusteko.

- Neskek soldaduzka egin bihar dabe? Ez neskek, ezta mutilek be.

- Desio bat eskatu ezkerre zein izango zan? Etxian dirurik ez faltatzia.

- Telebista gustokoa dozu? Bai, mordua. Zein programa gustatzen jatzu gehixen? Dokumentalak, Pelikulak...

- Zer moduz pasa ziñuen "Iron Maidenen" kontzertuan? Oso ondo.

- Zeiñi erregalatuko zenioke pin bat? Zuri.

- Eta zeñi ez? Samuri.

Horroroskopoa

♈ Aries: Ez duzue ondo entzuten, zzeerrrr? esaten neban nik.

♉ Taurus: Loterian parte hartu, zuek suerteko zaozie eta?

♊ Geminis: Hilaran azkenengo zaozela alde guztietan! zegaittik ete?

♋ Cancer: Atsaldeko 7etan jaiki barri dirudizu, musua gardintzia ere...

♌ Leo: Arraro xamar ibiliko zara, zuen astrala mugitu eginda eta.

♍ Virgo: Ez zaittez dirua alferrik gastatzen ibili, laister biharko dozu eta.

♎ Libra: Zure kuttunari idatzi, bestela idazten ere ahaztu bihar jatzu.

♏ Escorpio: Zorrozkilo bat baino zorrotzagoa daukazu laguna, kontuz puntarekin...

♐ Sagitarius: Malluki bila joan zazela ortura, sasoi honetan!! nun bizi zara?

♑ Capricornius: Inguaru guztietan lehena zara eskobia hartzen, etxean berriz...

♒ Acuaris: Txakur batek baino mutur txarragoa duzu. Zer gertatu da?

♓ Piscis: Arzak-era zoiazela bazkaltzera? etxekoa txarra da, ala???



IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK

24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828

Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salvador 3

PANADEROKUA TABERNA

CONCHI IDIGORAS
LARUNBATA ETA IGANDETAN
BERTAKO BABARRUNAK
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

SODADUZKA, ORDEZKO ZERBITZU SOZIALA, ANTIMILITARISMOA ETA INTSUMISIOA AZTERGAI.

Urtero legez, azaroak hego haizea ekartzeaz gain, euskaldun gazte asko petatea egin beharrean aurkitzen da. Hala ere, garai hauetan iñor gutxi joaten da soldadutzara norbere borondatez. Sorteoak eta Euskal Herrian bizi ditugun mugimendu antimilitaristak ahotan hartuta, aldaketa sozial eta ideologiko baten hedapenez arituko gara.

Euskal Herria beste Europako herrialdeekin alderatuz gero, estatistikek argi asko erakusten digute, Ordezko Zerbitzu Sozial (O.Z.S) eta Insumiso maila altuenak ditugula. O.Z.Seko datuetan agerienez, 32.000 mutilek hartu dute erabaki hau, soldaduzka egin eta insumiso izatearen artean. Intsumituak aldiz, Gipuzkoan bakarrik 2.000 dira eta 12.000 estatuan.

Soldadutzari eta O.Z.S.ri insumiso diren horietatik 300 kartzelaraturik daude Euskal Herrian. Horietatik 130 nafar daude Iruñeko espetxean.

Azaroaren hasieran kode penal berria onartu zuten. Testu berrian, intsumisioa delitu izaten jarraitzen du, baina zigorrak aldaketa bat jasan dute, itxurazkoak badira ere.

Zer dakar kode berriak?

Kartzela zigorraren "arintze"

bat, eta berria den elementu bat: intsumisioen inhabilitazioa. Azken honek, inhabilitazioak halaber, zer esan nahi duen eta zer ondorio dituen jakitzea ezinbestekoa da: Oposizioak egin, administrazioan lan egitea, ikasle bazera bekak jasotzea, diru laguntza publikoak, babes publikoa duten etxebizitzak erostea...intsumiso bazara, zortzi-hamalau urte bitartean ez duzu aukera hauetan parte hartzerik izango. Baina hau ez da dena: kartzela zigorra soldadutzarekiko intsumiso denarentzat, sei hilabete eta bi urte bitartekoa izan daiteke eta O.Z.Srekiko intsumisoentzat, 72.000 eta 36 milioi pezetatiko isuna. Isuna ordaintzen ez bada, arrestatze zigorra jartzen da. Zigorra bete eta gero soldadutzatik kanpo gelditzen zara, salbuespena gerra garaia.

Zer dela eta desberdintzen ditu legeak soldadutzarekiko intsumitu eta O.Z.Srekiko intsumituak?

Bi delitu desberdin kontsideratzen ditu bi aukera hauek. Batetik Ordezko Zerbitzu Soziala egiten hasi eta uko eginez gero, "konstituzioaren aurkako delitu bat egiten duzu". Aldiz Soldadutza egitearen aurkako izanda uko egiten badiozu joateari,

Euskal Herriko objetore kopurua

| | |
|----------|--------|
| EAE | 27.000 |
| Nafarroa | 5.000 |

Euskal Herriko intsumiso kopurua

| | |
|------------|-------|
| Gipuzkoa | 2.000 |
| Bizkaia | 3.300 |
| Nafarroa | 1.000 |
| Araba | 600 |
| Iparraldea | 15 |
| Guztira | 6.915 |

"defentsa nazionalaren, estatuaren independentziaren eta bakearen kontrako" delitua egiten omen da.

Intsumisioaren garapena eta gizartearen jarrera

1980. urtetik hona, intsumisoak kolektibizatu eta taldean hasi dira ekintzak antolatzen eta informazioa banatzen. Nafarrak izan dira aintzindariak eta egoera errepresibo horretan, zigor gogorrenak ere jasan zituzten eta jasaten dituzte. Epaiketetan nafar intsumitua izanez gero, bi urtetako gartzela zigorra jaso zenezakeen bitartean, E.A.Ean, urte betekoak zirenzigorrrak; ondorioz aske gelditzen zinen. Iruñeako gartzela intsumisoz betetzen hasi zen heinean, automatikoki hirugarren gradua

Ordezko zerbitzu sozialari intsumiso bazara, "konstituzioaren aurkako" delitua egiten duzu. Soldadutzarekiko intsumiso izanik, "defentsa nazionalaren, estatuaren independentziaren eta bakearen kontrako" delitua egin duzula aurreikusten du kode penal berriak.

M^a Karmen

Lenzeria

Lenzeria eta kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.
Tel: 78 90 40



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN**

**ER
HARATEGIA**

**A
S
T
I**

San Roke 6
Tel: 768168.

Intsumiso preso kopurua

| | 3. graduari | 2. graduari | Plantoan | Guztira |
|----------|-------------|-------------|----------|---------|
| Gipuzkoa | * | * | * | 22 |
| Bizkaia | 56 | 11 | * | 67 |
| Nafarroa | 125 | 25 | * | 145 |
| Araba | * | * | 2 | 4 |
| EAE | 200 | 36 | 2 | 238 |
| Espainia | 240 | 50 | * | 290 |

aplikatzen hasi ziren. Antimilitarista taldeek ez zuten uste irtenbide egokia zenik hau, intsumisioa ez baitzuten delitu bezala kontsideratzen; ondorioz, plantearen ideia sortu zen eta hirugarren graduari uko egiten hasi ziren, gartzelan sartuz.

Kode penal berria, 6 hilabete barru jarriko dute martxan. Gizartearen eta erakunde publikoen jarrera erabakiorra da. Jendeak atxekimentua erakutsi du intsumisioe-kiko eta orain kode berriaren aurrean berdina eskatzen die erakunde publikoei. Honela herritik hasita, udal intsumituak sortzeko eskera luzatzen ari dira eta dagoeneko hasi da mugitzen. Kasu batzutan inhabilitazio egoerak jasaten dituzte alkateek intsumituarekin batera, inkulpatu bezela agertuz gero epaiketean. Ekintza positiboa da gizartea eta estamentu publikoak preso haundia egiten dutelako.

Elgeta eta Intsumisioa

Herrian aurten sei gazte zozketatu dituzte. Denak ere inguruan geldituko diren arren, bost hauen artean biri galdetu diegu ea zergaitik hartu duten erabaki hau.

Unai Elorriagaren ustez, lanak eta ikasketak asko baldintzatzen dute, baina batik-bat beraren kasua lanean dagoela da eta datorren urteko azaroan

joan beharko duela. Momentuz, zozketatua izatea onartu du baina datorren maiatzean lan kontratua berritzen badiote ez du argi ikusten bere etorkizuna, akaso objetore egingo da.

Josu Zabalak, ikasketak bukatu berri ditu. Berarentzat garrantzitsua lana bilatzen hasi aurretik, soldaduska bistatik kentzea da garrantzitsua.

Patxi Basauri:
"Udaletxean mozio bat egotea espero da intsumisioaren inguruan eta ondorioz jarreraren bat hartu beharko dugu. Zerbait egitea aurreikusten da gutxi barru".

Beraz, aukera guztiak ondo aztertu eta gero erabaki hau hartu du soldadutza egin eta kitto. Badu familian kartzelan egon den lehengusu intsumitu bat eta berarekin bat datorren arren, beste bide bat hartu du.

Elgeta ez dago oraindik intsumisorik, baina udalaren jarrera jakin nahi izan dugu mugimendu sozial

honen aurrean. Horretarako Patxi Basauri alkatearengana zuzendu gara eta honoko hau esan du: "Pertsonalki, legea egoera berrira egokitzea da garrantzitsua. Udaletxeak aldiz, soldaduzka egin beharrean dagoen gazteari laguntzen saiatzen da, informazio eta paper guztiak eginez. Hala ere, gutxi barru mozio bat aurkeztuko dela uste dut intsumisioaren inguruan eta noski, posturaren bat hartu beharko da honen inguruan. Beraz zerbait egitea aurreikusten da, agian abenduan edo urtarri-lean, ez dakigu ziur".

Kode berriaren ondorioak

Soldadutzarekiko intsumisioentzat:

-Sei hilabete eta bi urte bitarteko kartzela zigorra bake garaian, eta bi eta lau urte bitartekoa gerra garaian.

-Hamar eta hamalau urte bitarteko inhabilitazioa.

OZSrekiko intsumisioentzat:

-Zortzi eta hamabi urte bitarteko inhabilitazioa.

-72.000 pezeta eta 36milioi arteko isuna.



I
L
E
A
P
A
I
N
D
E
G
I
A

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

P
A
T
X
I
T
A
B
E
R
N
A

Salbador 3
Tel: 768093

Fernando Ojanguren

M^o Jesus Mujika



URONDO
 elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
 Tel: 797815/771042 Faxe: 771476 ARRASATE.

PROTAGONISTAK IRRATIAN

Azaroaren 4an eskolako neska mutilen talde bat, Loiola Irratiak deiturik, saio bat egitera joan ziren. Horrelako saioetan ohi den bezala, abestu, xirula eta esku soinua jo, historioak kontatu eta beraiek hurrengo elkarrizketan esango duten bezala, barre asko eta ondo pasatzeko aukera izan zuten.

Ondorengo elkarrizketa Araitz Ojangurenak egin die; berak ez du joateko aukerarik izan baina oraingoan elkarrizketatzaile lana berak egin nahiko lukeela eman zigun aditzera. Hementxe sortu daitezke beraz etorkizuneko profesionalak.



1.- Zer ikusi zenuten irrattian?

Mahaiak eta mikrofono gorriak letra batzukin. Gainera, hizlariak kaskoak zeramatzan belarrietan eta kristal baten atzean gizon bat zegoen eta keinuen bidez ulertzen zuten elkar. Polita da baina bero handia egiten du, sauna baten bazeunde bezala.

2.- Zer egin zenuten?

Abestu, xirula jo, historio bat kontatu, txistekak, asmakizunak... Baina han zegoen neska hark, kaskoenak, pista haundiegiak esaten zituenenez, edonork asmatzen zuten.

3.- Zerbait berezia gertatu al zen?

Bai, bizkorregi irakurri genuela eta gutako bat urduri xamar zegoenez, alderantziz eman zituen erantzunak. Kotxe baten zio-azanak ere, bidean galdu egin ziren. Baina han barruan geundela, telefonoaren zaratak ere susto ederak eman zizkigun.

4.- Norekin prestatu zenu-



Irratia gertu gertutik ikusteko aukera izan zuten Elgetako haurrak.

ten irratsaioa?

Anderenoarekin eta bidean gindoazela entsaiatu genuen; gurasoek "alegriau, alegriau" kantatzeko eta irakurtzeko esaten ziguten bitartean.

5.- Gurasoek zer esan dizue?

Ondo jardun genuela baina polikiago irakurtzeko hurrengoan; gu urduri geunden, beraiek aldiz kristal atzetik begira eta barrezka .

6.- Irratia entzuten al duzue?

Batzutan bai, Maritxu Berritxu Euskadi Irratian, baina telebista gehiago.

7.- Ondo pasatu al zenu- ten? Joango al zarete berriz?

Baaaaaaaiiiiiiiiiiiiiiiiiiiii!!!!
Oso ondo pasatu genuen eta amaieran gozokiak eman zizkiguten. Datorren urtean ere joango gara.

ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK
JOSTAILUAK
ALDIZKARIAK
ESKOLARAKO TRESNAK
Salbador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta



ALDI DENDA (GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.
Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

KOMIKIA





DENBORADASA



Aurkitu bi marrazkien artean dauden bost diferentziak.

LEHIAKETA



Aurreko lehiaketako argazkia ondo begiratu gero, jartzeko dagoen tokitxo nabaritu zitekeen ezkerrekaldean. Hilebete honetan ere, zer den eta non dagoen asmatu duenik badago. **Iker Zbaletak**, kartatxo bat bidaltzearen eta erantzun zuzena ematearren bakarrik, Elgetako Gazte Asanbladaren kamiseta jasoko du. Ikusi Hurrengo hiru pausotan gure maketatzailerak nola lortu zuen irudia moldatzea.



Lekuen izenak aurreko hilabeteetan eskatu ostean, pertsonaia asmatzeko ahaleginak eskatuko dizkizuegu ale honetako lehiaketan.

Aurrekoan bidalitako karta kopuru handia ikusi eta gero, poz handia hartu dugu, baina, errazegiak jartzen ez ote garen galde egin diogu gure buruari; oraingo honetan beraz, **pertsonaiaren izena eta abizena** zeintzuk diren asmatu beharko duzue eta zuen datuekin *Goibekokalera* bidali.

Izena eta abizena: _____
 Erantzuna: _____
 Bizilekua eta telefonoa: _____

Saskibaloia: Estampaciones Elgeta bigarren Eibarko txapelketan



Iñakik, (2. eskuinetik) ezin izango du jokatu denboraldi guztian lesio bategaitik

Zazpigarren ihardunaldia bete ondoren Estampaciones Elgeta bigarren postuan doa Eibarren jokatzen den txapelketan. Aurreko alean aipatu genizuen bezala, Estampacionesekoek oso hasiera

txarra izan dute, denborandiko txarrena Pescaderias Pro-ren (lehenengo postuan doaz) aurkako partiduan jasandako porrota izan zelarik, partido oso txarra jokatu ondoren (48-40). Partidu honen ondoren gauzak hobetuz joan dira pixkanaka-pixkanaka, hurrengo partiduetan joko hobekuntza nabarmen bati esker eta aurkakoen maila eskasari esker errez gainditu dituztelarik hurrengo partidua. Adibide garbiena azkenengo partidua izan da, bertan 83 eta 27ko emaitzaz garaipeña lortu baitzuten. Argi dagoena da, naiz eta oraindik maila oso ona ematen ez ari, txapelketa irabazteko aukerak badituztela.

Pelota: Baque torneoan Elgetarrak nagusi

Xabier Ubera eta Eñaut Aranzeta Deba Garaiko Baque txapelketan garaile atera dira bakoitza bere mailan. Lehenak, hau da Xabierrek, finalerdietan Laskurain plazentziarra gainditu zuen (18 eta 12) partidua polita jokatu ondoren. Finalean Bengoetxearen (Eibar) aurka neurtu zituen bere indarrak erraz irabazi zuelarik. Azken emaitza 18 eta 4koa izanzen.

Eñautek berriz, Baqueko finalera iristeko beste herritar bat gainditu behar izan zuen, Peñalver. Partidua txarra izan zen biak urdu-ri atera baitziren jokatzerara; azkenean huts gutxien egin zituenak irabazi zuen partidua (18-15). Finalean Errarteren (Eskoriatza) jokatu zuen Aranzetak, arazo haundirik gabe irabazi zuen (18-8).

Deba Garaiko txapelkun

bezala, beste zonalde batzuetako txapelkun aurka jokatzeke aukera izan dute, Gipuzkoako Baque txapelketa irabazteko asmoz. Elgetarrei Tolosarren aurka jokatzea tokatu zitzairen sorte ezberdina izan zutelarik beraien neurketetan. Eñautek Saralegiren aurka galdu egin zuen (18-8). Ezin izango du semifinala jokatu. Xabierrek, aldiz, aurrera jarraitzen du txapelketan Arkaiztiari 18 eta 0 irabazi ondoren.

DV txapelketa, Elgetan

Diario Vasco txapelketaren finalaurdenak Elgetan jokatu ziren azaroak 26an. Bertan Zearra eta Barraondok, De Luz eta Berasaluze izan zituzten aurkari partidua luze eta bikain baten ondoren De Luz eta Berasaluzek irabaztea lortu zuten 22 eta 21.

Askasibar Arrasateko Txirindulari Elkartearekin ari-tuko da datorren denboraldian

Oskar Askasibarrek Arrasate Txirindulari Elkartean (ATE) korritzea erabaki du. Beste proiektu batzuk huts egin ondoren patrozinadore falta eta beste zenbait arrazoigaitik, sortu berria den talde honetara joatea erabaki du. Talde hau hamabost txirindularik osatzen dute, horietatik zortzi afizionatu mailara pasa berriak dira.

Elkorok, Unanurekin jokatuko du binakako txapelketa

Aitor Elkorok, Mikel Unanurekin jokatuko du eskuz binakako txapelketa. Txapelketa honetan dagoen berdintasuna eta bere sasoi ona ikusirik gauza garrantzitsuak egiteko moduan daudela adierazi digu Aitorrek.

Dagoeneko lehenengo partidua jokatu dute. Bertan, taldeko bikote makalena diren Eugi eta Lasa III.aren aurka neurtu zituzten beraien indarrak, inongo arazorik gabe irabaziz. Azken emaitza 22 eta 7koa izan zen.

Futbito txapelketa

Momentuz, bost ekipok eman dute izena aurtengo txapelketan jokatzeke. Bigarren bilera bat egingo da abenduaren 4an, arratsaldeko 7etan ekipo gehiago dauden edo ez jakiteko; ondoren jokatu beharreko egunak eta orduak zehaztuko dira, araudiari erreparatxo eman eta urtarrilaren lehenengo hamabostaldian hasteko oztoporik ez badago dena prest izango da. Izenematea oraindik zabalik.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

Berezitasuna: Buztana.

Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.



METALEN SALEROSKETA

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7

Telf-Faxa: 768064 Elgeta

ESKOLARTEKO KIROLAK

Elgetako 5. eta 6. mailako gazteak Diputazioak antolatutako txapelketa baten parte hartzen hasi dira oraintxu. "Multideporte" izenez ezagutua den txapelketa hau, bere izenak adierazten duen bezala oso berezia da bertan kirol bat baino gehiagotan parte hartu behar baita, hala nola, saskibaloian, futbitoan eta eskubaloian.

Elgetako taldeak jende falta dela eta 4. mailakoak hartu behar izan ditu, horela hamabi dira parte hartzen dutenak.

Torneo horretan Elgetakoz gain, Antzuolatarrek eta Bergaratarrek parte hartzen dute, ikastola bakoitzetik talde bat baino gehiago aurkezten direlarik. Partaide guztiak federatuta daude, horrela, ezbeharren bat gertatuz gero seguru bat daukate dena ordainduko lukeena.

Elgeta ordezkatzeko duen

taldea guraso elkarteak antolatua da eta partiduetara prestatuta joateko eta aldi berean arratsaldea ahalik eta ondoen pasatzeko, adin hauetan irabaztea ez baita garrantzitsuena, b a r i k u e t a n entrenamentua izaten dute. Orain saskibaloian jokatzeko ari dira seiko taldeak osatuz (seitik bost irabazi dituzte); denak denen aurka jokatzen dutenean beste kirol batetan arituko dira, kirol guztietan parte hartu arte. Kirol bakoitzean txapel-dun geratu den taldeak Gipuzkoako beste zenbait lekutan garaileak izan direnen aurka jokatzeko aukera izango du.



Orain arte sei partiduetatik bost irabazi dituzte

Neskak ezin dute taldekako txapelketan parte hartu izan jende falta dela eta



Elgetako gazteak saskibaloia partidua hasteko prest.

Taldekako txapelketak martxoan bukatuko dira, maiatzean banakako kirolak hasiko direlarik. Banakako kirolean neskek ere parte hartzeko aukera izango dute taldekako kirolean jende falta gaitik ezin izan baitute parte hartu. Banakako kirol hauetan pertsona bakoitzak kirol bat soilik aukeratzeko posibilitatea izango du, igeriketa, atletismoa, badmintona, txirrindularitza eta pelota direlarik aukeran dituztenak.

BILTEGI DENDA

Kirol, Burdin, Menajea.
Zugandik gertu, behar duzun beste.

SALBADOR 24

Tel: 76 82 06

Banco Santander

Aintzane Zabala Urien.

Salbador 11.

Telefonoa: 76.82.11

Orain Elgetan; jarri harremanetan eta ezagutu gure abantailak.

ELGETAKO BERBETIA DALA ETA EZ DALA

Elgetako euskeria dala eta ez dala, sorpresa hartu ei zeban Nerea Loidik. Jarraixan, euskera batua eta Elgetako euskeriaz berba eitten dau. Duda barik, gaixa zabala da eta gaixak eskatzen daben moduan hurrengo alian be zer esana eukiko dau. Nerea Loidik, Belen Maiztegiarekin batera Elgetako euskerian gainian lana ein zeban eta txosten horretatik etaratako ondorio batzuk kontuan euki dittu artikulu hau idazterakuan. Berak esaten dabenez euskeriak kalian izan bihako leuke lekua iñoren lotzia izan barik. Halaxe izan deixela.

Elgetako euskeria dala eta a zelako sorpresa hartu giñuan per-tsona nausi batzuen berbetia en-tzun eta aztertu giñuanian. Guk berba eta aditz forma asko galduta, eta zea, eurak euskera batuaren iñongo premiña barik ederki espre-satzen zeben dana.

Lehenengo hiru bat gauza aittatu biharian gaoz:

1.- Nahiz eta askoren ustez Elgetako Euskeria ez izan aberatsa eta dotoria, nausixeri entzutia bes-terik ez da bihar konturatzeko euki badaukala bere lexiko eta forma beresixak, gehixen bat Bizkaierako esaugarrietan oinarrituta.

2.- Euskera Batua ondo eto-rrri jaku danori; beti be euskalki guztiak lotzeko bide bat moduan hartuta, baña sekula bez antxiñako jatorrizko eusalkiak baztertze-ko.

3.- Orduan, zeattik entzu-ten da hain sarri erderia? Eta entzu-

ten dan euskeria geroz eta nahas-tuaua eta pobriaua? Hor dago kox-ka!

Euskera batua zabaltzen doian eran, Elgetako Euskerian berba ugari gal-duta daukagu-nok, euskera batuak momento askotan, esplika-tzeko orduan, laguntzen gai-ttuela kontura-tzen gaz. Baña bestaldetik, ez jaku komeni ge-ure euskalkixa ahaztu edo alde batera lagatzia.

Jakina da euskalkixaren ezaguera galtzen doiala. Alde bate-tik, euskaldun zaharrak alfabetatu barik (berba bai, baña nausixek gaztiei zabaldu barik informasiñua, eta idazten espada, forma horrek ahazten doiaz); Bestetik, erderara-

ko joeria daukatenak; eta erdixan demaseko ahalegiñak eitten dittue-nak herriko berbetia entendidu eta erabiltzeko (ANIMO, AURRERA, ETA SEGI HOLAXE).

Baña ezin douna ahaztu eta pisu haundixa daukana gure kul-turan, pertsona nausixen informa-siñua da. Eurak bai dakes gordeta hainbeste eta hain-beste berba, esae-ra, etab. eurak dauken berbeta horren balixua isu-garrixa da. Bestela probia eiñ, beti be

euren baimenarekin, kontuak kon-tatzeko eskatuta, preguntak eiñaz edo euren artian jokuan dihardue-nian onduan egonaz.

Nerea Loidi

Euskera batua ondo etorriko jaku danoi beti be euskalki guztiak lotzeko bide bat moduan hartuta, baña sekula bez antxiñako jatorrizko euskalkiak baztertze-ko.

Ez jaku komeni geure euskalkia ahaztu edo alde batera lagatzia.

HAIZEA
TABERNA

Salbador 5 Tel: 768256 ELGETA

ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua
San Roke 2. Tel: 768151



Argazkia Ana Gallastegi

Elgetarrak Angiozarren dantzan

Elgetan dantza taldea desagertu dela badira urte batzuk. Hala eta guztiz, urte haietako oroitzapen onak gordeko dituen jende asko egongo da oraindik. Argazki honek ere ziur zenbait istorio gogoraziko dizkiela zenbaitzuri.


Argazki hau, Angiozarko plazan atera zen orain dela Hogeita hiru edo hogeita lau bat urte, baina Ozkarbi dantza taldea beste zenbait herri ere ikusitakoa da dantzari jantzita. Elgetako Ozkarbi dantza taldean Elgetar askok ikasi du dantzan eta ezagutu dutenek badakite nolako lana egin den iraun duen artean. Gaur egun, EGAK antolatutako trikiti ikastaro puntualaz aparte ez dago dantzan non ikasirik; dantza taldea desagertuta dago pena bada ere.

Ezkerrean, atzetik-aurrera:

Eli Aranzabal eta Migel Aranzeta
M^a Karmen Irazabal eta Julian Markiegi
Ana M^a Gallastegi eta Jon Agirreazaldeg
Jaione Başauri eta Jose Luis Aranzeta

Eskubian, atzetik-aurrera:

Jabier Aranzeta eta M^a Lurdes Olabarria
Alberto Aranzeta eta Ane Aranzabal
Josean Olabarria eta Laura Aranzabal
Sebastian Aranzeta eta Garbiñe Irazabal



Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



EGAÑA
Soldadura



EGAÑA
Gas
industriala

Berriondokia industrialdea 7


20690 ELGETA

Tel. 78 90 61 - Faxe 78 90 14

Egaña
Instalakuntzak


**ETXERAKO ETA
INDUSTRIETARAKO**

- BEROGAILUAK
- AIRE EGOKITUA
- GASA



Goibekokale aldizkariko

loteria oraindik
salgai



21.528 Zenbakia

Taberna
eta dendetan
daukazu oraindik,
ez galdu aukera.

